

zientzia  
teknika  
euskara



Elhuyar

25

urte

### **Elhuyarren iragana, oraina eta geroa**

*Zientzia, teknika eta euskara. Elhuyar Kultur Elkartea. 1972-1997, 25 urteko ibilbidea. Zilarrezko ezteiak. Edozein talderi gertatzen zaion bezala, gazi-gozaok bizitzeko aukera izan dugu mende-laurdeneko ibilbidean. Eskarmentua eman digute horiek guztiek eta aurrera goaz bide horretan, bidezidor berrietan barna, bidai-lagun berriez inguratutik.*

*Atomo honen nukleoa inoiz baino sendoago dago eta ez zaizkugu elektroiak falta geure lana hobetuz egungo erronkari behar bezala eutsi eta erantzun ahal izateko. Horretan gabiltza eta ohizkoen eta hurbilduko zaizkigun berrien laguntzaz errazagoa izango delakoan gaude.*

*Zorionak eta eskerrik asko garena izateko laguntzatxoren bat edo beste eman diguzuten guztioi. Guztion ahaleginei esker baitugu zilarrezko ezteiak ospatzeko aukera.*

**ZORIONAK, beraz, eta eutsi goiari.**

1972ko Euskal Herrian *Zeruko Argia* zen euskaldunon erreferentzietako bat eta lekukotasun horren muinean Amatiñok astero-astero idazten zuen *Zenbat Gara* orrialdea nagusia izan zen, dudarik gabe. Hara jotzen zuen jendeak euskal kulturari eta gizartearen puri-purian zegoenaren berri jakitera.

Testigantza horren harian, lan horri buruzko bere ikuspegia eman dezan eskatu diogu Amatiñori. Ondorengo lerroetan bere burutazioak eta motibazioak azaltzen dizkigu Eibarko kazetariak, beste hainbat konturekin batera.

# ZENBAT GARA

## GARAI BATEKO KRONIKA

Amatiño

**O**rain dela hogeita bost urte doi-doi, 1972ko udan hain zuzen ere, *Zeruko Argia*-ko Miren Jone Azurtza, Edorta Kortadi eta sekula gogoratzen ez dudan hirugarren bat ate-joka etorri zitzaizkidan Eibarrera, ea astero-astero Euskal Herriaren kronika egingo ote nuen galdezka zein eskaka. Ordurako urteak neramatzan —bospasei luze bai— Eibarko berriemailearenak egiten eta ildo beretik edo jarrai nezan nahi zuten, hau da, hitz-jario urriko albiste laburrak, bizi-bizi, esne-berba gutxi eta ahalik eta berririk gehien eskainiz. Diferentzia batez, hori bai, Eibar eta bere inguru-  
minguruari soil-soilik atxiki beharrean, nire esku legokeen Euskal Herri guztiari hel niezaiola aurrerantzean. Ez dut uste elkarrizketa hark hamar minutu baino gehiago iraun zuenik edota ni konbentzitzeko hondarrak gabeko itsaso handitan murgildu behar izan zutenik. Nik entzun nahi nuena adieraztera etorriak ziren nonbait eta, lehendabiziko hitzak sumatu ondoren, gainerako guztiak sobera zeudekeen. Besterik gabe, horrela sortu zen hurrengo udazkenean *Zenbat Gara* saila, ia ustekabean jaio eta hiru urtez euskal irakurleen astero-  
informazio-erreferentzia garrantzitsuenetakoa bilakatu zena.

Sailaren izena, *Zenbat Gara*, Benito Lertxundiren kanta ezagunari zor zitzaion: *Zenbat gera? Lau, bat, biru, bost, zazpi...* Gero, hogeitabost urte geroago, aurren alegia, jakin dut kanta Benitoren izan arren, letra, oster, Abel Muniategirena zela eta dela noski, baina orduan behintzat oriotarra besterik ez genuen gogoan abesti hura kantatzerakoan eta, hain zuzen ere, haren jaialdi eta diskoetan zabaldu ohi zen mezuari nahi bide genion jarraitu, zenbat garen, zenbat ginen euskaldunak, euskal irakurleak eta euskalgintzan konprometituak zenbat ote jakin gurarik edo.

Batere zalantzarik gabe, *Zenbat Gara* izan zen garai hartan euskaraz idatzitako informazio-sailik irakurriena. Ni neu harritu ere harritu nintzen asteroko kronika hark berehala lortu zuen arrakastaz eta, hiru urte eskasean, "Amatiño" gaitzizena Luis Alberto Aranberri bera baino askoz ere ezagunagoa, ospetsuagoa eta egiazkoagoa bihurtu zen. Adibide gisa, *Zeruko Argia* utzi eta 1977an *Deia* egunkarian lanean hasi bezain laster, zuzendaritzak Sabino Aranaz artikulu bat idatz nezan eskatu zidan eta baita nik idatzi eta, txintxo asko, nire izen-abizenez sinatu ere. Jose Manuel Alonso erredaktore-buruak (gaur egun *El Periódico de Alava*-ko zuzendari denak) zereko

zera esan zidan, ordea: "Joë. Amatiño, ¿a qué viene eso de firmar con seudónimo?"

Sail hark arrakasta handia lortu zuela esan dut eta, orain, hogeita bost urte geroago, uste dut jakin ere badakidala arrakasta haren nondik-norakoa. Baina orduan ez nekien, ez dakit inortxok ote zekien, baina nik behintzat ez. Orain, urak joandako presaren antzera, hainbat argudio estilistiko eta soziologiko iker ditzakegu, ustekabean gertatu zen fenomeno hura ulertaraz dezaketen arrazoiak aztertzerik bada, baina, onenean ere, denon artean egitura ditzakegun teoria hutsak baino ez dira, ni neu ez bainintzen egiten ari nintzenaz jabetzen, batere eskolarik gabe egiten nekiena baino ez nuen egiten eta hango ekarria eta etorria, ekarria eta etorria baldin baziren bederen, berezko ekarria eta etorria besterik ez baitziren izan.

Lehen eta behingoz, orduko euskal aldizkariak ulertu nahi dituen gaur egungo irakurleak ohartu beharko du garai hartan ez zela ia euskaraz idatzitako informaziorik, informazio peto-petorik behinik behin. Astekariak idazle- en iritzi-artikulez osotu ohi ziren gehienbat eta erreportaje-lanaz ezer gutxi egiten zen, ez baitzegoen erreportaririk eta are gutxiago Unibertsitatean lizentziatutako euskal kazetaririk. Hau da, neurri handi batean, hegoalde honetan behintzat, euskal kazetaritza hirurogeita hamarreko hamar-kadan zehar sortutako komunikazio- eta literatura-generoa da. Nolabait epez epe eta labur asko adierazteko: ordurarteko *Zeruko Argia* astekaria hainbat idazle, saio-idazle, apaiz, irakasle, unibertsitari eta pentsalariren artikulu-bildumez osotutako argitalpena izan zen; 1972an *Zenbat Gara* sailarekin batera sortu zen nolabait lehen asteroko kazetari-lana eta ondoko hiruzpalau urteetan mamitu ziren informazio-, erreportaje- zein elkarrizketa-formulak. 1976an *Zeruko Argia* informazio orokorreko aldizkari bihurtu zen, gaur egun duen formatu eta guzti, eta 1977an sortu ziren *Deia* eta *Egin* egunkari berriak aurreko urteetan *Zeruko Argia*-n arituz ofizioaz jabetu ziren lehen euskal kazetarien esperientziaz baliatu ziren batez ere.

Nik 27 urte nituen, ezkontuta eta bi seme-alabaz, *Zenbat Gara* sailari ekin nionean eta ez nuen neure burua kazetaritzat, ez ikasketez eta ez bestez. Peritu Merkantila nintzen eta nire aitaren tindategian niharduen lanean. Bilbon eta Madrilen inoren arropa zikinak garbitzen, tindatzen eta lisatzen ikasten aritu nintzen, aitari zor nion euskaltzaletasuna eta amari, berriz, irakurzaletasuna. Proporzioz orain baino askoz ere gehiago irabazten nuen, familia oneko semea nintzen eta, ordurako, bizitza erabat bideratuta... Miren Jone Azurtza agertu arte.

Miren Jone Azurtza, Mikel Atxaga, Mikel Ugalde, Donato Unanue eta gainerakoek murgilarazi ninduten benetan kazetari-ildoan, nire berezkoari gustatu eta... gero gerokoak. Beraiek izan

ez balira, ez zen *Zenbat Gara*

sailik sortuko, ez nik

1974an euskal ka-

zetaririk onenari

"Kirikiño" saria ira-

baziko, ez *Deia*

egunkariaren lan-

-eskaintzarik jasoko,

ez Eusko Kontseilu

Nagusian lehenik eta

Eusko Jaurlaritzan gero

ihardungo, ez HABE eta

ETBren sorreretan buru-

-belarri parte hartuko, ez

eta segurutik sekula santan

politikagintzan sartuko ere.

Beraz, *Zenbat Gara*-rik izan

ez balitz, nik, seguru asko,

oraindik ere, nire familiaren

tindategian lanean jarraituko

nuke, lasaiago eta diru gehiago ira-

baziz behar bada, baina amatiñore-

nei darizkien gazi-gezak dastatu eta

jasan gabe.

Besteak beste, sail hark euskaldu-

nen ezinbesteko erreferentzia bate-

ratua izaten asmatu zuen. Behar bada

ez zen zailegia ere, garai hartako euskaldunak,

oro har, elkarrekin ondo samar konpontzen zen

familia handi bat besterik ez baitzen. Baina, edo-

zein modutan, jatorri, maila eta jakituria desber-

dinetako euskal irakurleak bildu zituen. Euren

ekintzen berri eman nahi zuten elkarte eta anto-

lamenduak berehala konturatu ziren informazioa

nora bidali behar zuten jendeak irakurriko

bazuen, euskalgintzan gertatzen zenaz bere

burua informatu nahi zuenak bazekien non aur-

kitu eta irakurri eta galderarik arruntenak zein

xelebreenak (bilerak, helbideak, harremanak, hizkuntza-arauak, bataio-izenak, liburu-argitalpe-

nak, denetariko kontsultak, etab.) egin nahi zuen



## ZENBAT GARA sailaren zenbait xehetasun

Ez da gero batere erraza gaur egungo irakurleari 1972tik 1975era bitarteko hiru urte eta erdi eskas irauin zuten Zenbat Gara sail haren nondik-norakoa azaltzea. Hala ere, hona laburbilduz zenbait xehetasun:

- ✓ Informazio-esparruari lehentasuna eskaini zion, ordura arte nagusi ziren iritzi-artikuluaren kaltetan. Ez zuten informatuz entretenitu baino beste xederik. Informazioa eta entretenimendua, bi kontu guztiz berriak ziren garai hartan, are gehiago elkarrekin nahasian jarri nahi izanez gero.
- ✓ Asteroko sail finkoa izan zen, irauin zuten bitartean sekula hutsik egin gabe, asteroko informazio-zita beraz.
- ✓ Planteamendu hura ere berria zen euska aldizkarigintzan, ordainik gabeko lanetan ez baitzegoen astero-asteroko konpromezurik inori eskatzerik.
- ✓ Euskal informaziorik gehien biltzen ahalegindu zen,

- denetariko berriak ematen zituen, Euskal Herri osoan gerta zitekeen guztiaren berri eman nahi zuten eta, zer gerta ere, euskal galaxiaren topaleku eta isla bilakatu zen. Zer esanik ez kontuan izanik erda komunikabideek ez zutela euskalgintzaz batere informatzen. Urte haiek aztertu nahi lukeenak nekez uzi ahal izango du sail hau irakurri gabe.
- ✓ Informazio asko eta asko postaz eta telefonoz bildu ohi zen, baina beste asko eta asko tokian-tokian jaso behar izaten zen. Kazetaria kalera atera zen, herriz herri ibili, aurkezpenetara agertu, bere burua azaldu, aurpegia erakutsi, eskariak jaso, kritikak entzun, aurrez aurre kontu eman, etab.
- ✓ Kazetari-estiloaren urratsak berreskuratu zituen, ehun urte lehenago Jean Hiriart Urrutik proposatu zuen dekalogoaren izpirituaz jabetuz. Hau da, irakurle arruntaren jakingarri eta ulergarri idatzi eta ez

- idazlearen beraren ustezko jakituria eta goi-mailaren erakusgarri.
- ✓ Euskara batuaz bai, arau guztiak zorrotz asko konplutuz, baina ahozko komunikazio-sistemaz, erabat arteza eta erraza, orduan indarrean zeuden moda edo konbentzionalismoei muzin egin eta, teoriar behintzat, batere literatura-senik gabe. Egilearen ezintasunez eta ezjakinez gehiago, nahita edo apropos baino.
- ✓ Albisteekiko nolabaiteko distantzia nabarmena izan zen, orduan nagusi ziren hil-ala-biziko transzendentalismoa eta fundamentalismoa alde batera utziz. Jarrera hau ere ez zen konsziente, arazo handirik gabe bizi zen familia oneko semeari zegokion giroaren isla baizik. Sailari zerion ironia azpimarratu zuen Joseba Intxaustik eta beste ezein euskal arlotan ez zegoen umorea sumatu zuen Joxe Azurmendik. ◆

irakurleak ere bazuen nora jo, non itaundu eta nori idatzi. Diktaduraren azken urteak ziren (Franco 1975ean hil zen), bizkor etorri behar zuten trantsizio demokratikoak, Euskal Herria pil-pilean, aurreko hogeitaz urteetan loratuko kultura-ekintza indarrean zegoen, euskaldunak informazio zuen amets eta *Zenbat Gara* saila, kasualitatez edota prozesu haren emariz, pare-parean suertatu zen. Gainera, erdal egunkariak diktaduraren errutinan jarraitzen zuten oraindik dezente kostatu zitzaizkien etorri zetozen garai berriari amore ematea eta zenbait urte laburretan euskal astekariak erdal egunkariak baino informazio berriago eta gehiago eskaintzeko gauza izan ziren. Era bateko zein besteko informazio-iturri guztiak izan zuten tokirik bertan. Honek ez du esan gura erabateko neutraltasunik izan zenik lerro artean. Koldo Mitxelena idatzi zidanez: *denok bilatu abal izan zaituzte, baina batzuek beste batzuk*

*baino sarriago bilatu nahi izan zaituzte*". Eta, bere ustez, ez ziren beretarrak sarrien bilatu nahi izan nindutenak.

Oraindik ere, hogeita hamabost urte geroago, Bilbotik Baionara bitartean, lantzean behin, ezezagunak hurbildu izan ohi zaizkit edozein kale-bazterretan, *Zenbat Gara* sailaren irakurle sutsuak izan zirela gogoratuz: *"Hura bai hura..."*, *"Astero baren zain egoten ginen..."*, *"Haiek denborak gero..."*, *"Zergatik ez duzu orain idazten?"*. Orduko ildo noizbait edo nonbait galdua da antza. Eta batez ere azken galdera hori entzuten dudana bakoitzean zera itaundu izaten diot neure buruari: Irakurleek galdu naute ni ala nik galdu ote ditut orduko irakurleak? Edo, beste modu batera esanda, ba al da gaur egungo euskal kazetaritzan kolore, adin eta maila guztietako irakurleek irakurtzen duten ezer? ✗

## ELHUYAR anaiak

**E**lhuyar-Zubize familiaren arrastoen bila Parisera joan behar da, han ezkondu baitziren Jean eta Ursula 1746an. Medikuntza-ikasketak

bertan eginak zituen Jeanek hiri hori izan zen bikote gaztearen bizilekua lan-kontuak zirela medio Bilbora joan ziren arte. 1753. urtean Jeanek Logroñon plaza lortu zuen eta han finkatu zen familia. Hiri honetan jaio ziren, beraz, Joan Jose (1754ko ekainaren 15ean), Fausto Fermin (1755eko urriaren 11n) eta Maria Lorentza (1757ko abuztuaren 8an). Ursula ama 1758an zendu zen eta Dominika Elizagairekin ezkondu zen berriro aita.

1772an aitak Fausto eta Joan Jose Parisera bidali zituen ikasketak egitera. "Le jardin du Roi" izeneko ikastetxean eman zituzten lehen urratsak; batez ere kimika eta mineralogia landu zituzten Elhuyar anaiak.

Orduan kimika iraultza handian murgilduta zegoen. Bismutoa, nikela eta manganesoa, adibidez, garai horretan aurkitu zituzten eta nomenklatura berria ere orduantxe ari zen ezartzen. Lavoisier, Berthollet, Guyton de Morveau, Bergman, Scheele, Werner, eta abarren lanak ezagutzeko parada ezin hobeia izan zuten bi anaiak.

1777 eta 1778an Bergarako Erret Mintegiko laborategian hasi ziren lanean, baina laster joan ziren berriro bi anaiak Europara (Paris, Strasburg, Mannheim, Freiburg, Leipzig, eta abarretara) metalurgiari buruzko azken teknikak ikastera.

Austrian eta Hungarian ibili ondoren, 1781ean Joan Jose Suediara abiatu zen eta Fausto Bergarara itzuli zen; bertan bere dotazioaren herena erabili behar izan zuen Darcet-ek esplikatutako teknika Saxoniatik ekarritako mineral bati aplikatu ahal izateko, Bohemia eta Saxoniaren mugako Zinnwald-eko eztainu-meatzetatik ekarritakoari, hain zuzen. 1782az gero, anaiak Joan Joserekin batera egin zituen bere saiakuntzak.

Minerala deskonposatu eta burdina eta manganesoa atera zituzten. Geratzen zen hondakina azido nitrikoz tratatuta, hauspeakin zuria lortu zuten. Gero azido klorhidrikoaz konbinatuz, hauspeakin horia lortzen zen ( $WO_3$  edo wolframio(VI) oxidoa, hain zuzen). Berau erreduzitzeko, xehetu eta ikatz-hautsarekin nahastuta ordu eta erdiz su bizian eduki zuten. Botoi gris moduko bat atera zen. Hatzetan hauts bihurtzen zitzairen, alerik handiena orratz-buruaren tamainakoa zelarik. Wolframio izeneko elementu kimikoa zen, munduan lehen aldiz Bergaran isolatua.



Joan Jose Elhuyar



Fausto Elhuyar

Aurkikuntza nagusi horren berri idatzita lehen aldiz Xabier Maria Munibe eta Azkoitiko Zalduntxoek osatutako Herri Lagunen Erret Elkartearen Gasteizko Batzarre Nagusian eman zen 1783an. Hurrengo urtean eta seguruenik Faustok idatzita, Frantziako Tolosako Zientzi Akademiak argitaratu zuen aurkikuntza-prozesuaren txostena. 1785ean Ingalaterran argitaratu zen, 1786an Alemanian eta ondoren Suedian.

Fausto eta Joan Jose Elhuyar anaiak gero urre, platino, zilar, kobre, burdinurto eta abarrekin nahastuta wolframioaren aleazioak lortzen saiatu ziren.

Fausto Bergaratik Alemaniara eta Hungariara joan zen, Born-eko baroiak zilar-mineralak merkurioz tratatzeko asmatutako teknika ikastearren. Ameriketara teknikariak eramateko lanean ere ibili zen. Vienan 1787ko urriaren 16an Joana Raab-ekin ezkondu zen eta urte hartantxe frantsesez *Dissertations métallurgiques* izeneko lana idatzi zuen, baina zoritxarrez ez da guganaino heldu.


Espainiara itzuli zen Fausto eta 1788. urtera arte meatzetarako injineru eta teknikariak (alemanak asko) prestatzen aritu zen. Mexikora eraman zituen berekin hango ustiapenak hobetu eta berri-tzearren eta bertan 1792an "Real Seminario de Minas" izeneko sortu zuen, hango lehen injineru-eskola, alegia. Joan Jose ere Ameriketara joan zen, Granada Berriko (gaur egungo Kolonbiako) meatzetan lan egitera. Mutis-en espedizio botanikoan parte hartzeko aukera izan zuen bertan lanean ari zela. Bogotan hil zen, 1796ko irailaren 20an.

1821ean Agustin Iturbide (Mexikoko enperadorea izango zena) Ameriketara heldu zenean, Faustok bere kargua utzi eta Espainiara itzuli zen. Espainiako Meatzaritzako Zuzendaritza Nagusia antolatu zuen eta Espainiako mapa geologikoa prestatzeari ekin zion. Asturiasko meatzek ere aztertu zituen.

Meatzetako Zuzendari Nagusi eta Meatzaritza Eskolako zuzendaria zela, Madrilan hil zen 1833ko urtarrilaren 6an. ♦

# URTEZ URTE, EZINA EKINEZ EGINA

Inaki Irazabalbeitia



*Elhuyar Kultur Elkartearen garapena zortzi bat mila karakteretan. Egin liteke, noski; ez da, ordea, erraza. Gure elkartearen 25 urte hauetan zer kontatu asko dago eta kontatzeke gauza asko geldi daitezke: ezjakintasunaz edota gogo-ahuleziaz. Hala eta guztiz ere, ez dezala irakurleak azalpen zehatzik edo xehetasunez beterikoa hemen aurkitzea espero.*

**L**erro eta gertaera nagusiak azaltzen saiatuko naiz, jakinaren gainean egonik, bestalde, ez naizela objektiboa izango historia horren lekuko, protagonista eta, neurri batean, eragile izan naizelako. Ikuspegi subjektiboa izango da eta hautuak egin beharko ditut, baina lekukotasunaren izenean barkamena eskatzen dut, aldeaz aurretik, ikuspegia pertsonalegia suertatzen bada. Elhuyarren erroak 60ko hamarkadaren bukaeran bilatu behar dira. Garai hura biziki aberasgarria gertatu zen Euskal Herriko bizitza soziopolitikoan. Frankismoak 25 urte zeramatzen boterean. Adierazpen politiko, sozial eta kulturala oso-osu mugatuta eta kontrolatuta zegoen eta erregimenak markatutako arau estu-estuen barnean jokatu behar zen. Egoeraren erakusgarri izan liteke, beste askoren artean bat aukeratzeagatik, kantu-

-jaialdietako kantuek aurretiko zentsura pasatu behar izana.

Giro horretan aldaketa handiak gertatzen ari ziren euskal gizarteak. Batetik, gerra zibilaren eragina zuzen-zuzenean pairatu ez zuen belaunaldi batek, aurreko belaunaldiaren etsipena zalantzan jartzen zuenak, protagonismo soziala hartu zuen. Bestetik, kulturaren mundu zabala pil-pilean zegoen eta premisa berriak ezarri ziren arte plastikoetan, literaturan, kantagintzan zein hizkuntzaren garapenean.

Belaunaldi gazteak euskararen estatusarekiko planteamendu berritzaileak zituen. Euskara ez zen etxean, lagunartean edo elizan bakarrik erabiltzeko hizkuntza, giza komunikazioaren alor guztietan erabili behar zen erreminta baizik. Etxepareren esaldia parafraseatuz, euskarak etxeko txokotik plazara irten behar zuen, horrek

zituen ondorio guztiekin. Hamarkada horretakoak dira euskara batua, ikastolen suspertzea, euskalduntze-alfabetatze mugimendua abiatzea, Euskal Kultur Taldeak (EKT), etab.

EKT horietako batean izan zuen jatorria Elhuyar Kultur Elkartek, Donostiako Industri Injineruen Eskolakoan, hain justu. Eskolaren giroak, batetik (zuzendaritzak euskal gaietarako erakutsi tolerantziak, euskaldun-portzentaia handiak, etab.ek), eta, bestetik, bertako zenbait ikasleren nortasun eta kezka handiak euskal giro sendo eta eragin-korra egotea ekarri zuten. Horren ondorioz, zientzia eta euskara uztartzeko ardura hartu zuten injineru-ikasle horiek.

Kezka eta ardura horiek eraginkorki bideratzeko modua 1972ko otsailaren inguruan gauzatu zen,

eskola horretako hiru ikasle ohi (Luis Mari Bandres, Jesus Mari Goñi eta Andoni Sagarna) eta bi ikasle (Juanjo Gabiña eta Mikel Zalbide) bilerak egiten hasi zirenean euskara zientziaren mundura zabaltzeko asmoarekin. Elhuyar taldea jaio zen eta geroztik larunbatero izan zuen hitzordua arratsaldeko lau eta erdietan Donostiako San Ignazio Zirkuluan.

Elhuyarrek Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen babesa lortu zuen eta urtetan haren adarra izan zen, nahiz eta erabateko autonomia izan eta Elkarteak konturik inoiz eskatu ez.

Injineru-talde sortzailea berehala zabaldu zen eta Elhuyarren bileretara injineru teknikoak (taldearen historian oso pisu handia duen Iñaki Azkune Mendia, esaterako), arkitektoak, informatikariak

## ELHUYAR TALDEA: izena eta izana



Iñaki Azkune Mendia

**H**ogeita bost urte igaro dira, abiada bizian igaro ere, Elhuyar taldea sortu zela eta taldea diot, artean elkarte gisa legezatu gabe zegoelako. Orduan Donostiako Goi Mailako Injineru Eskolan ibiliak ziren eta zebiltzan euskaltzale batzuk beren gaiak euskaraz landu nahi zituztelako astero-astero biltzen hasi ziren. Donostiako San Martzial kaleko jesuiten "Circulo San Ignacio" zen topalekua eta larunbat-arratsaldea ohizko bilera egiteko eguna. Larunbateko bilera egiteko deirik ez zen espreski egiten; deia berez beti egina baitzegoen. Baina bilerara ez joatea arriskutsua izan zitekeen. Izan ere, joandakoek aho batez erabakitzen zuten joan ez zenari zer lan egitea tokatu zitzaion. Hasiera hartan injinerutzan erdaraz ikasitako gaiak euskaraz lantzea zen helburua eta horretarako testuliburu batzuk prestatu ziren. Matematika, fisika, kimika, etab. ziren taldearen hastapenetan landutako gaiak.

Euskara zientziaren eta teknikaren arloan normalizatu egin nahi zen eta horretarako terminologia lantzea izan zen lehen lana. Euskaraz gai horietan lehendik argitaratuta zegoena biltzea eta euskara batuak emandako lehen urratsetara moldatzea ezinbesteko abiapuntua izan zen.

Taldeak lege aldetik behar zuen babesa Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak eman zion eta geroxeago argitaratzen hasitako "Elhuyar" aldizkaria ere Elkarte horren adar

gisa plazaratu zen. Eskertzekoa da garai hartan Alvaro del Valle Lersundi jauna lehendakari zela Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Elhuyar taldeari emandako laguntza.

Taldeak aldizkariari "Elhuyar" izena ipini zion, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Bergaran zuen Erret Mintegiko laborategian Fausto Fermin eta Joan Jose Elhuyar anaiek wolframioa deitu zioten elementu kimikoa munduan lehen aldiz isolatu zutelako. Euskal Herriak zientzia eta teknikaren arloan egindako ekarpen nagusietakoa zelako izen egokia iruditu zitzairen taldekideei eta aldizkariak ez ezik, taldeak, eta gero elkarteak ere, izen horixe dute harrezkero. ♦



Sortzaileetako batzuk:

1. Iñaki Azkune; 2. Feliz Azpiroztz;
3. Luis Mari Bandres; 4. Jesus Mari Goñi;
5. Rene Harluxet; 6. Xabier Larrea;
7. Andoni Sagarna; 8. Imanol Tapia;
9. Kepa Zalbide; 10. Mikel Zalbide

(Harluxet-tarrak), injineru gehiago (Felix Azpiroz, Xabier Larrea eta Kepa Zalbide, esaterako), kimika-ikasleak (1976), medikuak (1977) eta ekonomilariak (1978) bertaratu ziren. 70eko hamarkadaren bukaerarako talde multidisziplinarioa zen Elhuyar.

Taldeak ezaugarri nagusi bi zeuzkan garai hartan: batetik, irekitasuna eta, bestetik, larunbat arratsaldero taldekideak biltzea. Larunbateroko bilerek eman zioten indarra taldeari. Lanerako pertsona liberaturik ez zegoen eta taldekideek beren ohizko lanetatik at egiten zituzten taldeak erabakitako lanak. Larunbateroko bileretan zer, nork eta nola egin deliberatzen zen eta, nolabait esatearren, planifikazio estrategikoa egiten zen. Dena den, bilera horietan eztabaida terminologiko eta linguistikoek pisu handia izan zuten lehen urte haietan. Horietako eztabaida bat da Elhuyarreko nire lehen egunaz dudan oroitzapena.


Bilerak, gainera, irekiak ziren: euskara eta zientzia uztartzeko lan egiteko prest zegoen edonork parte har zezakeen; ez zuen beste meriturik edo aita pontekorik behar. Giro horretan, bilerek Elhuyarren kohesioa eta iraunkortasuna bermatu zuten, eta, zergatik ez aitortu, ondorengo txiki-teoak ere nolabaiteko talde-sena. Ez zegoen, beraz, taldekide-izaera definiturik eta larunbatetako bileretan maiztasunez parte hartzeak bihurtzen zuen pertsona bat elhuyarkide. Elhuyarkideen lehen zerrenda ofiziala 1977ko memorian agertzen da eta bertan 17 lagun agertzen dira osataile legez eta beste 20 laguntzaile moduan.

Elhuyarrek hasiera-hasieratik izan du beste erakundeekin elkarlanean aritzeko joera. Lehen urte haietan, Udako Euskal Unibertsitatea bultzatzen eginiko lanak, Euskaltzaindiaren Matematika Hiztegiko batzordean parte hartzea edo Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin landutako arkitektura-hiztegia aipa daitezke, besteak beste.

Elhuyarren hasierako lanek trebakuntza dute oinarrian: hizkuntzarena eta pertsonena (idazleena zein irakurleena). Euskara eta zientziaren alorrean ia dena egiteko zegoen eta salbuespen bakan batzuk, oso gutxi izan ziren 70eko hamarkada baino lehen zientzi gaiez euskaraz idatzi zutenak, Gabirel Jauregi izan ezik. Lehen lanak ikastoletarako testuliburuak eta hiztegitxoak prestatzea izan ziren. Gero, *Elhuyar* aldizkaria etorri zen (1974).

Hiztegitzaren alorrean 1976, 1977 eta 1978an landutako *Zientzia eta Teknikarako Hitzen Bilduma* izenekoa azpimarratzekoa da, egun ahaztuxea dugulako besterik ez bada ere. Makina bat ordu eman zituzten taldekideek horretan, gero, apika, ustiaketa egokiegia izan ez dutenak. Eus-

milioi pezeta/  
/langile-kopurua




Elhuyar Kultur Elkartean aurrekontu, subentzio eta salmenten bilakaera (milioitan) eta langile-kopuruaren bilakaera (unitateka), urtez urte.

kal tradizio idatzia arakatzuz eta hustuz zientzia eta teknologiarekin erlazionatutako 50.000 hitzeko fitxategia osatzea lortu zen. Fitxa orotan euskarazko terminoa eta haren gaztelaniazko ordaina ematen ziren. Hiztegia euskarri informatikoan jarri zen (informatika hiztegitzari aplikatzean aintzindariak izan ginen) eta inoiz argitaratzeko asmoa egon bazen ere, azkenik Euskaltzaindiaren esku jarri zen materiala.

Taldearen lanaren bolumena handiagotu ahala, Elhuyarrek nolabait profesionaltasunaren bidea jorratu behar zuela ikusi zen. 1977an egin zen urrats hori. Egun erdiko lanaldiarekin bi lagun jarri ziren lanean: bata, matematikaren didaktikarako taldean eta, bestea, administrari gisa. Egungo gure administraritza-arduraduna, Maria Luisa Aizpuru, izan zen azken hau. Dena dela, taldekideen lan militanteak funtsezkoa izaten segitu zuen. 1984ean taldekideen lan militantea





koantifikatu egin zen. 24.000.000 pta. inguruko aurrekontuan taldekide ez-profesionalen lanaren balioa 7.500.000 pta.koa izan zen.

Urte berekoa da, halaber, lehen diru-balantze dokumentatua. Bertan, 1.043.000 pta.ko sarrerak eta 1.061.000 pta.ko irteerak ageri dira, taldearen babesle nagusiak, harpidedunetz gain, *Lankide Aurrezkia*, *Gipuzkoako Kutxa*, *Donostiako Kutxa* eta *Banco Industrial de Guipuzcoa* ageri direlarik. Gastuetan, aldizkariaren kostua osoaren erditik gora ibili zen.

Hiztegiak, testuliburuak eta aldizkaria ez ziren aski euskara eta zientziaren mundua uztartzeko, baldin eta gerora erreminta horiek baliatu behar zituzten profesionalak beren zeregina euskaraz egiteko gai ez baziren. Gauza jakina da orduko zenbait ikastolatan zientzi gaiak gaztelaniaz irakasten zirela, irakaslea euskalduna izanik ere, bere jakintzagaia euskaraz lantzeko gauza ez zelako, ikasketa guztiak gaztelaniaz egiteagatik. Arazo horri aurre egiteko eta profesionalak beren arloan euskalduntzeko, zientzietako irakasleei zuzendutako lehen trebakuntza-ikastaro berezituak antolatu zituen Elhuyarrek 1979an. Lau izan ziren guztira eta Alfabetatze Teknikoko ikastaro esan zitzaien.

1980.a aldaketa-urtea izan zen. Elhuyarrek San Ignazio Zirkulua utzi eta Atotxako frantziskotarren lokaletan egonaldi laburra egin ostean, Donostiako Garibai kaleko 23an finkatu zuen bere lehen egoitza propioa. Era berean, epe luze-eragin handia izan zuten erabaki garrantzitsuak hartu ziren urte bukaerako bileran: *Elhuyar* aldizkariaren kudeaketarako arduradun bat izendatzea, taldeari lege-nortasun propioa lortzeko lehen pausoak ematea, taldearen egunerokotasunak sortutako arazoez arduratzeko talde iraunkor bat sortzea eta testugintzan bigarren mailako irakaskuntzako testuei leku gehiago ematea. Horietako erabaki batzuek berehala izan zuten ondorioak. 1981ean aldizkariaren edukiak eta egitura berri ziren eta Elhuyar berezko izaera juridikoko kultur elkarte bilakatu zen.

Iharduerak ugaritu ahala, Elhuyarreko profesionalen kopurua haziz joan zen, baita horren pisua erakundearen aurrekontuetan ere. 1984an zazpi liberatu zeuzkan Elhuyarrek: bat administrazio-lanetarako, beste bi mekanografi lanak egiteko eta lau aldizkariak eta testugintzaz arduratzeko. Horrek taldeak egoitza handiagoa hartzea ekarri zuen eta Garibai kaletik Urbieta kaleko 7ra aldatu zen Elhuyar.

Taldean gero eta profesional gehiago izateak aldaketa nabarmena ekarri zuen lan egiteko moduan. Aldaketa ez zen bat-batekoa izan, urtean zehar ia konturatu gabe gertatu zen. Langile-taldeak eta 1980an sortutako talde eragileak (nagusiki taldeko profesionalak ez zirenek osatua) hasi ziren taldearen ibilbidearen nondik-norakoak gobernatzan. Gero, 80ko hamarkadaren bukaerarako lan-talde profesionalak hartu zuen ia osorik taldearen kudeaketa.

1984an Onura Publikoko Aitormena eman zion Eusko Jaurlaritzak Elhuyarri. Inoiz ez dugu izendapen horren benetako balio erabilgarria zein den jakin. Urte berean lehen ordenadorea erosi genuen Elhuyarren; testu- eta grafiko-lanketarako Rank-Xerox 8012 postua izan zen, 3.000.000 pta. inguru kostatu zena. 1986an urtean erosi genuen lehen Macintosh. Horren balio erabilgarriaz, ordea, berehala jabetu ginen.

Bestetik, 1984an Elkar argitaletxearekin akordioa egin zen testuliburuak elkarrekin argitaratzeko. Hitzarmenaren helburua, elkarlana bultzatzeaz landa, Elhuyarrek liburuak argitaratzeko egin beharreko inbertsioak murriztea izan zen. Hitzarmena oso positiboa gertatu zaigu, kaxoian lozorroan geldituko ziratekeen testuliburu asko kaleratzea ahalbidetu digulako.

1985 berrikuntza askotako urtea izan zen. *Elhuyar* aldizkariaren osagarri dibulgatzailea

indartzea erabaki zen. Horretarako bitan banatu zen: oso-osorik zientziaren dibulgaziora zuzendutako *Elhuyar. Zientzia eta Teknika* eta ikerketa-mailako *Elhuyar. Aldizkari berria* bihilabetekaria zen eta formatuz eta itxuraz dibulgazio-aldizkari estandarren parekoa. Durangoko azokan aurkeztu zen 0 alea. Gerora, 1989an, hilabetekari bihurtu zen *Elhuyar. Zientzia eta Teknika*. Harrera ezin hobea izan zuen aldizkari berriak eta epe laburrean harpidedun-kopurua bikoiztu egin genuen; 700 ingurutik 1.400era pasatu ginen.



80ko hamarkadaren bukaeran Elhuyarren iharduera anitzen bolumen handia zela kausa, Donostiako Urbietako kaleko egoitza (behekoa) txiki gelditu zitzaigun, tokiz zein azpiegituraz eta Usurbilgoa (goikoa) erostea erabaki genuen.



Irakaskuntza-materialen munduan bi alor berri hasi ginen jorratzen: bideogintza (*Robotika* izeneko bideoa ekoiztu zen) eta ordenadorerako hezkuntza-programak.

Dena den 1985ak ekarri zuen berrikuntzarik handiena euskalduntze/alfabetatzearen atalekoa izan zen. Irispide luzeko berrikuntza izan zen, izan ere. Hain zuzen ere, urratu gabeko bideak bazirela uste izan genuen. Irakasleek eskolak euskaraz ematen trebatzeko ematen ziren Alfabetatze Teknikoak enpresa-mundura zabaldu eta langileei beren lana euskaraz egiteko prestakuntza espezifikoa eskaintzea pentsatu zen. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalean eta Donostiako Udaletxean eman ziren lehen bi ikastaroak. Hurrengo urteetan anitz ikastaro eman zen eta horiekin batera MOPI eta LAKET izeneko proiektuak landu ziren. Ekinbide horren ondorio nagusia arduradun politiko zein enpresetan, euskara eta enpresa bikotearikiko ikuspegi berritzailea sortaraztea izan zen: euskarak enpresa-munduan tratara espezifikoa behar du. Horren haritik, enpre-

setan euskararen erabilera areagotzeko Eusko Jaurlaritzarekin sei urte iraun duen hitzarmena sinatu zen (1991-1996). Hitzarmen horren bitartez metodologia espezifikoko batez eta esperientzia sakonaz jabetu gara. Beraz, euskarazko zerbitzuak lan-munduan lantzea da Elhuyarren etorkizuneko iharduera-esparru nagusietako bat.

Gerora horrenbeste neke eta pozkida emandako *Hiztegi Entziklopedikoaren* lehen aztarna 1988ko memoriaren eranskinean dago, berari erantzen baitzaio proiektuaren lehen zirriborroa. 1989an

zehar dirulaguntzak bilatzen aritu eta gero, 1990ean abiatu zen *Hiztegi Entziklopedikoaren* erre-dakzioa.

80ko hamarkadaren bukaeran Elhuyarren iharduera anitzen bolumen handia zela kausa, Donostiako Urbietako kaleko egoitza txiki gelditu zitzaigun, tokiz zein azpiegituraz. Hainbat aukera aztertutako ostean, Usurbilgo Asteasuain industri poligonoan 400 m<sup>2</sup> inguruko lokala erosi genuen 1990ean. Hamarkada honetako gertaerak eta lorpenak hur, hurregi agian, dauzkagu hoztasun-puntu batez juzkatzeko, baina ezin uka daiteke Elhuyar asko hazi dela eginez zein lankidez.

Oroimena berritzeko zerrenda ditzagun laburki azken urteotako lanik eta iharduerarik nabarmenen-

ak: Eusenoren sorrera (1991), *Hiztegi Entziklopedikoa* (1993), *Euskara-Gaztelania/Gastellano-Vasco Hiztegia* (1996), euskarazko lehen CD-ROMa izan den *Ezagutu Gipuzkoa* (1994), ZETIAZ zerbitzua (1994), CAFeko mikroplangintza (1995), CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako Sariak (1994) eta komunikazio-zerbitzuak (1995). 25 urte begira ditugu. Historia badugu. Euskalgintzari ekarpenak egin dizkiogu. Kultur enpresa bezala sendotu egin da Elhuyar euskalgintzaren baitan. Dena den, egoera ez da xamurra. Bidegurutze batean dagoela esan daiteke. Erabaki handiak hartu beharko dira eta horiek bermatuko dute gure proiektuaren bideragarritasuna. Horretan elhuyarkideok erantzukizunik handiena dugu, baina euskalgintza kudeatzen duten arduradun politikoena ez da, horratik, txikia; beraien erabakiek edo erabakirik ezak erraztuko baitute Elhuyarrek eta euskalgintzako beste erakundeek etorkizuna izango duten ala ez. X


*Elhuyar Kultur Elkartearen historia izen-abizenez beterik dago eta ezin denak gogoratu. Bestalde, guztien lana eskertzeko aukera paregabe hau ere ezin pasatzen utzi. Horregatik, Elhuyarren lankide izanik elkartearen historian itzala eta izena duten Iñaki Azkune eta Maria Luisa adiskideengan gauzatu nahi izan dugu eskertze hori. Eta nor Luis Bandres, Elkarteko lehen lehendakaria, baino egokiagoa hori egiteko? Zorionak eta eskerrik asko.*

# ELHUYARREKO “GOARDIA ZAHARRA”

Luis Bandres Unanue

**D**uela hogeitazazpi bat urte Donostiako Injineritza Eskolan ibilitako adiskide batzuk, gero Elhuyar Taldea izango zenaren bidetik abiatu ginenean, aipatutako Eskolatik pasatu gabeko lagun bat edo beste inguratu ahal izan genuen; horietako bat, Peritaje Eskolan nire kurtso-kide izandakoa, Iñaki Azkune zestoarra, izan zen. Garai hartan Iñaki Lasarteko Michelinen ari zen lanean, baina euskararekiko, edo hobeto esanda euskara teknikoarekiko, zeukan kezka eta grina nabariak taldekide egin eta lehenengo unetik lanari gogor heltzera bultzatu zuen. Garai hartan, zer esanik ez, ez genuen txanponik inori ordaintzeko. Denborak aurrera egin ahala bere bokazioa gero eta nabarmenagoa izan zen, hau da, ahal zuen denbora gehien euskarari eskaintzea; horregatik, taldearen egoera ekonomikoa piska bat hobeagoa izan zenean, hasieran egun erdiz eta gero egon osoz Elhuyarrera joatea eskatu zitzaion, bai eta berak onartu ere. Gaur egun arte, eta espero dezagun oraindik ere urte askotarako, hor izan dugu eta dugu gure Iñaki Azkune jo eta ke beti irrifartsu eta prest taldearen edozein lan egiteko, bere gizatasuna eta prestakuntza aparta eskainiz.

Eta zer esan M<sup>a</sup> Luisa Aizpururi buruz? Hasierako taldea abiatu eta paperak pilatzen hasi zirenean beste zereginetan genbiltzen haiek idazkari baten beharraz jabetu ginen. Gauzak makinaz idazteko, kontuak behar bezala eramateko, telefonoari kasu egiteko, eta abar luze bati erantzuna emateko lagun baten premia argi baino argiago zegoen. Zorionez M<sup>a</sup> Luisakin egin genuen topo. Lehenengo unetik M<sup>a</sup> Luisak hartu zuen ardura ez da erraza azaltzen, hortaz jabetu ginenean taldearen oinarritzko brida batzuk lasai-lasai bere eskuetan utzi genituen lanaren “banaketa arrazional” bat eginez: berak bulegoko erantzukizuna hartuko zuen bitartean guk materialak prestatuko genituen edo ikastaroak emango.



Iñaki Azkune.



Maria Luisa Aizpururi.

Denbora aurrera joan da. Gure inguruan gauza asko eta sakonki aldatu da; horien artean gizartean euskarak lortu duen prestigio eta trataera dugu. Hau dela eta, Taldeak bitarte gehiago izan ahala, hasieran ametsak baino ez ziren lan batzuei heldu ahal izan die. Honetarako egun osoko langileak behar ziren; honela, taldekide berri batzuk profesional egiten ari ziren bitartean, hasierako partaide gehienak laguntzaile bezala geratzen ginen. Eta honela izan behar du: lanek maila profesionala eskatzen dutenean erantzuna, batez ere profesionalak eman behar dute. Zorionez hauxe izan da gure Elhuyar Taldearen joera. Honela, “Goardia Zaharreko” Iñaki eta M<sup>a</sup> Luisa lagunek hasierako izpiritua belaunaldi berriari transmititu die. Beraz, eskerrik asko egunero Elhuyarren ari diren guztiei, baina bereziki Iñaki eta M<sup>a</sup> Luisari, hainbeste urte gure hasierako asmoari hain ongi heldu diotelako eta, bestalde, badakizue “Goardia Zaharreko” gainontzekoak, gure mailan eta gure ahalbidearen arabera, laguntza emateko beti prest gaudela. Zorionak eta jarraitu hurrengo hogeitabost urtetan! **X**

Elhuyar Kultur Elkartearen 25 urteko historiaren ibilbidean barrena, azken muturrera, oraindik historia ez dena, iritsiak gara. Zer da, bada, Elhuyar Kultur Elkartea gaur? Historiak ekarri gaitu une honetara eta, historia horretan, barne-faktoreek —Elhuyarko kideen eta laguntzaileen ahaleginek, nahiek eta ezinek— eta kanpo-faktoreek —euskararen bilakabidearen eta Euskal Herriaren egoera kultural eta politikoaren gora-beherak, argiek eta itzalek— bilbatu eta ehundu dute gaur egungo Elhuyarren iharduera.

# GAUR EGUNGO ELHUYAR

Alfontso Mujika

**H**otz-hotzean eta produkzio-ari begira, Elhuyar euskalgintzaren arloko zerbitzu-enpresa dela esan behar da, inoiz baino profesionalagoa. Garai bateko militantismoa bigarren mailan dago gaur egun, eraginkortasunak agintzen baitu, baina, bigarren mailan egonik ere, militantismoa ez

da itzali, hori gabe Elhuyarrek ezin izango baitzukeen zenbait lan aurrera atera. Berebat, euskararen normalizazioaren aldeko militante-izaera hori gabe nekez helduko zien euskaldun gizartearentzat interesgarriak diren baina bideragarritasun ekonomiko guztiz zalantzazkoa duten edo ekonomikoki onura-

rik ez eta bai diru-galera etengabe sortzen dizkioten zenbait lani. Koordenatu horien barnean aztertu eta aurkeztu behar da Elhuyar Kultur Elkartearen gaur egungo iharduera-multzoa.

Euskalgintzaren arloko zerbitzu-enpresa da, beraz, Elhuyar eta lau sail nagusitan ari da gaur egun:

## A) Irakaskuntzaren munduko materialen produkzioa eta irakasleen prestakuntza

Hauxe izan da Elhuyarren hasiera-hasieratik iharduera-lerro garrantzitsua eta gaur egun ere hala da. Arlo hau, dena den, zenbait azpi-sailetan banatuta dago:

### A.1- Testuliburuak

200 liburitik gora argitaratuak ditu Elhuyarrek, zientzia eta teknologiaren arlokoak gehienak eta bide-urratzaile izan da, zalantzarik gabe. Nolanahi ere, euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua errentagarritasunaren "masa kritikora" iritsi denean lehiakideak ere iritsi dira —normalizazio-seinalea nolabait— eta Elhuyarrek ez du bere burua prestatu borroka-leku horretan lehiatzeko edo, bestela esateko, beste lehentasun batzuek gidatuta ibili da. Ondorioz, testuliburuaren produkzioak ez du, gaur egun, historikoki izan duen pisua. Ez da txikia horratik. Azken aldi honetan batez beste beste hamar testuliburu argitaratzen ditu Elhuyarrek urtean, Batxilergo, Lanbide Heziketa zein Unibertsitatekoak.



200 liburitik  
gora argitaratuak  
ditu Elhuyarrek.

Gainera, Hezkuntzaren Erreformak berekin ekarri dituen eskakizun berriei erantzun ahal izateko pres-tatzeak Elkartearen helburu izaten segituko du.

### A.2- Irakaskuntzarako material osagarria

Testuliburugintzatik abiatu, pixkanaka bereiziz eta gorpuztuz joan da eta, egun, hari nagusitu egin zaio. Bi adar ditu azpisail honek:

#### A.2.1- Irakaskuntzarako softwarea

10 urteko esperientzia du honetan Elhuyarrek; bide-urratzailea izan da eta, gaur egun euskarazko soft-ware-ekoizle nagusietakoa da. Gainera, arlo hau indartuz joan da poliki-poliki eta 1995etik aurrera lortu



10 urteko esperientzian bermatzen da softwarea.

ditu emaitzarik biribilenak, CD-ROM euskarriko produktuekin (*Ezagutu Gipuzkoa*, *Euskal Herriko Fauna*, *Euskal Herria Multimedia Entziklopedia*, batzuk aipatzearen). Informazioaren teknologia berriek gero eta garrantzi handiagoa dute irakaskuntzan eta bide horretan euskara gainerako hizkuntzen pare egon dadin ahalegintzen da Elhuyar.

#### A.2.2- Bideogintza

Hasieratik ulertu eta erabaki zuen Elhuyarrek kalitatearen bidetik joan behar zuela eta horrek, bideogin-



Bideogintzan kalitatearen bidetik.

tzan, nor bere produktuak egin nahi izanez gero, inbertsio ikaragarriak eskatzen ditu, merkatua oso urria den bitartean. Horregatik, munduan dauden kalitate handiko bideo-produktuak euskaratu eta bikoizteari ekin zion, eskoletan bideo onak euskaraz ere egon daitezten. Ahalegin horretan kokatzen da Erresuma Batuko BBC etxearen bideoak euskaraz produzitzea. Koalitatiboki garrantzitsua izanagatik, azpisail hau Elhuyarren produkzioan koantitatiboki txikia dela adierazi behar da.

#### A.3- Irakasleen prestakuntza

Irakasleak prestatu eta gaitze-ko ikastaroak antolatu ditu Elhuyarrek eta beste erakundeek (UEU, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, HABE, etab.ek) antolatutako ikastaroetan eskolak ematen ditu.



Ezin ahaztu irakasleak.

### B) Hiztegiak eta entziklopediak

Elhuyarren iharduera berrienetakoa da eta azken urte hauetan elkartearen kalitate-ikur bilakatu da. 90eko hamarkadan sortu eta garatu da sail hau eta produktu garrantzitsuak kaleratu ditu eta kaleratzen ari da (*Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa*, *Euskal Hiztegi Modernoa*, *Euskara-gaztelania / Castellano-euskara Hiztegia*, *Ikaslearen Hiztegia*). Pertsonal- eta ordu-inbertsio garrantzitsuak egin ditu Elhuyarrek sail hone-



Hiztegien eta entziklopedien iharduera elkartearen kalitate-ikur bilakatu da.

tan; datu-baseak etengabe eguneratu eta hobetu behar dira eta horretan lanordu asko joaten dira, baina emaitza pozgarria da: urte gutxitan, hiztegin-tzan erreferentzia garrantzitsu bilakatu da Elhuyar. Garai berriek, bestalde, kontsulta-materialak gero eta eskuragarriago edukitzeko aukera franko dakartzate eta horietaz baliatu da Elhuyar kontsulta-bideak errazteko. Horrela, paperean nahiz CD-ROM euska-

I. Nogeraz



Euskara-gaztelania/Castellano-vasco Hiztegiaren aurkezpen eguna (1996ko apirila). Ezkerretik eskuinera: Inaki Irazabalbeitia, Miren Azkarate, Xabier Mendiguren eta Antton Gurrutxaga.

rrian lantzen ditugu gure produktuak, teknologiaren baliabideak erabiltzaileen zerbitzura jarritz. Hiztegiak eta entziklopediak egitea ez da lan xamurra izaten. Gaur gaurkoz konpondu gabe dauden arazo askoren aurrean gure iritzia eman eta proposamenak egin behar izan ditugu. Etorkizunerako presatzen ari da gure hizkuntza eta Elhuyar du langintza horretan lagun. Iharduera honetan aholkulariak eta laguntzaileak funtsezkoak dira hizkuntzaren inguruan dauden sentikortasun desberdinak jaso nahi badira. Elhuyarrentzat zorte handia ez ezik, ohore bat ere izan da gure obren inguruan elkartu diren aholkularien lana gertutik ezagutu ahal izatea.

### C) Zientziaren dibulgazioa

Zalantzarik gabe, Elhuyarren iharduera zaharrena da hauxe, gainerako arloen gibelean hastapenetatik egon

baita beti dibulgazio-helburua. Taldearen lehen agerikaririk hasi eta gaur egungo aldizkariraino, euskara garbi eta ulerterrazaz eman die euskaldunei Elhuyarrek zientziaren aurrerapideez jabetzeko aukera.

Gaur egun hilabetekaria den *Elhuyar*. *Zientzia eta Teknika* aldizkaria da arlo honetako produktu nagusia eta, neurri handi batean, Elhuyarren bandera-untzia. Ez da hori, alabaina, dibulgazioari eskainitako zabalgunek bakarrik. Aldizkariaren beraren itzalean hedatuz eta gorpuztuz joan da dibulgazioa helburu duen zerbitzua, 1994. urteaz geroztik nortasun propioz funtzionatzen duen ZETIAZ zerbitzua. Zientziaren berri-agentzia bezala sortu bazen ere, gaur egun hori baino gehiago da: era askotako zerbitzuak eskaintzen dizkie komunikabideei eta zientzi ekoizleei.

Euskal Herriko komunikabideei zientziaren inguruko informazioa modu xamurrean eskaintzen die ZETIAZek; noiz-behinkako kolaborazioak egiten ditugu ia komunikabide guztietan (*Euskaldunon Egunkaria*, *Argia*, *Herri Irratia*, *Bizkaia Irratia*...) eta aurten bigarren urtez Elhuyarrek oso-osorik ekoiztutako *Norteko Ferrokarria*, ordu beteko irratsaioa egiten ari gara Euskadi Irratian. Euskaraz egiten den zientziaren dibulgazioak ez du sekula izan gaur egun duen agerpen-maila eta oraindik zeregin handia badago ere, Elhuyar erreferentzia dela ukaezina da.

Zientzia gizarteratzeko asmoz, bestalde, institutu, eskola edo kultur etxe askotara ere heldu da Elhuyar.



Hitzaldiek ere garrantzia dute zientziaren dibulgazioan.



Hona hemen dibulgazioaren ibilbidean kaleratu diren produktuetako batzuk.



Beasaingo CAF enpresarekin batera urtero antolatzen diren Zientzi Dibulgaziorako Sariak gero eta oihartzun zabalagoa lortzen ari dira urtetik urtera.

I. Nogeraz



I. Martínez



Euskara lan-munduan txertatzeko langintzan bide-urratzaile izan da Elhuyar. Arlo honetan lortu diren emaitzek bermatzen dute lanaren balioa. Balzers-Elay.

I. Nogeraz



Goiko argazkian, Andres Arizkorreta CAFeko Zuzendaria sari-banaketan. Behekoan, ezkerretik hasita, Andres Arizkorreta, Jose Angel Ugarte, Maria Luisa Aizpuru eta Jabi Duoandikoetxea.

Hitzaldiak emanez, jendeari osasuna, natura, ekologia, teknologia edo zientziaren inguruko gaiak modu ulergarrian eskaintzen zaizkio. Elhuyarrek kudeatzen duen hizlari-sare hori gure kolaboratzaileek osatua da nagusiki; urte hauetan guztietan gure proiektura arriatu diren kolaboratzaile eta lagun horiek gabe nekez iritsiko zen gaur egungo Elhuyar 25 urte betetzera.

Izan ere, euskara bera bezala, idazleak eta hizlariak ere trebatzen joan dira Elhuyarrek batera. Aldizkariak agerleku aproposa eskaini die idazleei, bere gaiak lehen aldiz euskaraz azaltzeko bidea eginez kasu askotan. Lan horren emaitzarik ikusgarriena Beasaingo CAF enpresarekin batera urtero antolatzen diren Zientzi Dibulgaziorako Sariak dira, urtetik urtera oihartzun zabalagoa lortzen ari direnak.

Iharduera hauek guztiek nortasun berezia eman diote taldeari. Dibulgazioan eta komunikazioan eskarmentu handia hartu du Elhuyarrek eta orain beste erakundeen esku jartzeko moduan dago. Horrela, *Madridgo Comisión Interministerial de Ciencia y Tecnología* (CICYT) erakundeak onetsita, Euskal Herriko hiru ikerketa- eta teknologi zentzoren lana ezagutarazteko proiektua martxan dugu aurten. Halaber, CICYTek berak aitortu dio arestian aipatu dugun *Norteko Ferrokarrilla* irratiaioari bere balio dibulgatiboa.

#### D) Euskara lan-munduan txertatzeko langintza

Arlo honetan bide-urratzaile izan da Elhuyar eta hala da gaur egun ere. Eusko Jaurlaritzarekin 1991-96 bitartean hitzarmen baten bidez landu du arlo hau eta bere aldetik ere beste lan asko egin ditu. Urteetan metatutako esperientziak eta malgutasunak egoera

berrietara moldatzeko eta zabaltzeko aukera ematen dio eta, ondorioz, askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu arlo konplexu honetan: enpresetako hizkuntz aholkularitza hutsetik hasi —euskara enpresako lan-hizkuntza bihurtzeko planaren bideragarritasun-azterketak adibidez— eta handik aurrerako zerbitzu guztiak hartzeraino, hau da, enpresa-mailako edo enpresaren sail bateko hizkuntz mikroplangintzak diseinatzea, plan horiek gauzatzea eta horretarako behar diren materialak sortzea eta baliabideak jartzeta, plan horien gaineko kontrol eta ebaluazioa eta plana gauzatu ondorengo jarraipena eta lan puntualak egitea. Iharduera ekonomikoa banatzen den hiru oinarritzko sektoreetako enpresetan lan egin du eta bere metodologia sortu eta garatu du pixkanaka. Langintza honetan erakunde askorekin ditu harremanak (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza, Gipuzkoako Diputazioa, HABE, etab.) eta arlo honetan emaitzek bermatzen dute lanaren balioa.

#### E) Kanporako hizkuntz zerbitzuak

Hemen sartzen dira Elhuyarren baliabideak erabiliz kanpoko erakunde eta enpresentzat burutzen diren lanak, euskararen ingurukoak ia beti:

##### E.1- Itzulpena

Itzulpen-zerbitzua eta lexikografia-zerbitzua (baita zenbait arlotako terminologi zerbitzua ere) eskaintzen du Elhuyarrek, batez ere zientziaren eta teknologiaren inguruko itzulpen teknikoaren arloan, eskarmentu handikoa, eta erakunde publiko (Administrazioak, Unibertsitatea, ...) eta pribatuak (enpresak, argitaletxeak, ...) ditu bezero.

E.2- Komunikazio-zerbitzuak

Publizitate-kanpainak (prentsa-bulego zerbitzua), euskararekin zerikusia duten edo zientzia eta teknologiari lotutako iharduerak edo produktuak gizartratzeke planak, informazio-arlo jakin bati buruzko informazio-orriak edo -aldizkariak (erredakzioa, ilustrazioa eta maketazioa barne direla) eta antzeko zerbitzuak eskaintzen ditu Elhuyarrek.

Aurreko lerroek erakusten dutenez, Elhuyarren lan-eremua zabala da oso, eta aldakorra ere bai, ardatz nagusi batzuk baditu ere. Ideia-fabrika edo -arragoa da Elhuyar, han eta hemen beharrak edo iharduera-lerroak detektatu, elkartetik bertatik detektatuak nahiz kolaboratzaileek proposatuak, eta proiektu asko diseinatzen ditu. Asko gauzatu egin dira eta beste batzuk, biziki interesgarriak izanagatik, tiraderan gordeta daude, ekonomikoki bideragarri egingo dituen modua edo unea noiz iritsiko. Izan ere, ez baita nahikoa proiektu onak izatea, proiektu horiek euskalgintzarako interesgarriak izatea eta haiek gauzatu ahal izateko gaitasun teknikoa izatea; Elhuyarren lan-eremuko esparru asko ekonomikoki defizitario-

Artxibokoa



Komunikazio-zerbitzuak areagotzen ari dira Elhuyarren. Argazkian aurten UEUri arlo honetan eskaini zaion prentsa-bulegoa osatu duten kideak ikus daitezke.

ak dira, euskal mundua txikia baita, baina euskarak, biziko bada, behar ditu horiek ere. Horixe da Elhuyar etengabe mehatxatzen eta, maizegi, bilurtzen duen arazoa, askotan nahiaren eta ezinaren artean harra-patuta egote horrek etsia hartzera bultzatzen baitu. Horiek dira, hogeita bost urte bete dituen honetan, Elhuyarren argiak eta itzalak. Atzera begira pozarren begiratzen du, aurrean duen bide malkartsuari gogotsu baina kezkatu so egiten dion bitartean. X

## Ikus-entzunezkoen garaian Elhuyar. Zientzia eta Teknika



Eustakio Arrojeria

**B**ai irakurle, ezin dugu hori uka. Behin eta berriro entzuteaz gain, haur txikiak ditugunok egunero dugu ikus-entzunezkoen garaian gaudela gogorarazteko aukera. Telebista, bideoa eta irratia dira informazio-iturri nagusiak. Baina, ez bakarrik, jakina! Elhuyarren dihardugunok badakigu medio horiek oso garrantzitsuak direla eta ez dauzkagu inolaz ere alboratuta. Gure ihardueretara erreparatzea baino ez dago hori horrela dela egiaztatzeko. Irratietan egiten ditugun programak eta kolaborazioak dira horren ageriko lekukoak. Baita, oraindik argia ikusi ez duten zientziaren dibulgazioa areagotzeko proposatu ditugun telebista-programak ere. Zein da, alabaina, *Elhuyar. Zientzia eta Teknika* aldizkariaren egitekoa ingurune horretan? Zergatik eta zertarako mantendu horrelako aldizkari bat egungo merkatuan? Merezi al du?... Inolako ezbaierik gabe, BAI!

Zergatik? Euskaldunok zientziaren munduan gertatzen ari denaz informatuta egoteko eskubidea dugulako. Gainera, bertatik sortutako informazio horrek kanpokoak etorritakoak ez dituen osagaiak ditu: Euskal Herriko zientzi produktioaren berri zuzen-zuzenean izatea. Balio erantsi bi ditu, beraz, *Elhuyar. Zientzia eta Teknika*: euskara eta bertakotasuna. Ez dugu, dena dela, lo hartu behar. Aurrera begira aldizkaria hobetu beharrean gaude edukiz eta itxuraz eta, gainera, irakurle-segmentu berriak geureganatu behar ditugu (gazteak, esaterako) haienzako produktua egokituz. Baina, taldeak aldizkarian egiten dituen ahaleginek (harremanak, lankideak, informazio-sareak, sinesgarritasuna, etab.) haratago joan behar dute eta zientziaren dibulgazioaren alorrean beste baliabide batzuk baliatu behar dira. Horretan badugu esperientzia: telebista-saio batzuk, *Norteko Ferrokarrila*

irratsaioa, *Izarren Hautsa* gehigarria Euskaldunon Egunkarian, hitzaldi-zikloak, etab. Positiboa da oso esperientzia eta horren eragina areagotzeko duela hiru urtetik hona ZETIAZ zientzia eta teknologiari buruzko informazio-zentroa martxan dugu eta, zientziaren komunikazioaren alorrean, esperientzia piloto bat garatzen ari gara CICYTen laguntzaz. Esparru honetan, zientzi informazioko telebista-programa ekoiztea da gure erronka nagusia. Eta horretan ari gara, aldizkariaren itzalean hazten ari diren adar berriak ere zaintzen, jakinik, nolahi ere, enborrak eutsiko diola zuhaitzari. ♦



## Irakaskuntzarako materialen produkzioa



Lurdes Ansa

**E**uskalgintzako beste zenbait alorretan bezala ikasmaterialgintzan ere Elhuyarri bidea urratu eta irekitzea tokatu zaiola dirudi. Elhuyarren borroketako bat haurrek, eta batez ere OHO euskaraz egin eta amaitu duten gaztetxoek, euskaraz ikasten jarrai dezaten material egokiak lortzea izan da. Urte askotan aritu da zeregin horretan; 1976-77 ingurukoak dira Elhuyarren lehen testuliburuak: matematikakoak, kimikakoak eta fisikakoak. Lehenago apunte moduko batzuk ere prestatu ziren. Bideoak eta softwareak 1980ko hamarkadaren erdialdean hasi ginen prestatzen eta, azkenik, CD-ROMak 1993tik hona.

Lehen testuak ikastola eta lehen mailako hezkuntzara zuzendu ziren. Alabaina, 1980ko hamarkadaren hasieran erabaki estrategikoa hartu zuen Elhuyarrek: lehen mailako irakaskuntza bazter utzi eta bigarren mailako irakaskuntzarako materialak prestatzen indar egitea. Bereziki garrantzitsua ikusi zen Lanbide Heziketarako materialak sortzea eta argitaratzea, arrisku nabarmena baitzegoen, espezialitateen atomizazioaren ondorioz, Lanbide

Heziketa euskalduntze-prozesutik at gelditzekoak. Geroak erakutsi du arrazoi genuela askogatik baita, oraindik ere, Lanbide Heziketa euskarazko irakaskuntzaren erronka.

Halaber, garai berekoak dira unibertsitaterako prestatutako lehen liburuak, UEUrekin elkarlanean gertatu zirenak.

Elhuyar aitzindari izan zen testugintzan. Horrek dituen abantailak, onespen soziala esaterako, eta desabantailak, merkatuaren murrizta besteak beste, pairatzea suertatu zaio. Orain egoera bestelakoa da: ia bakarrak izatetik, lehiakidez inguratuta egotera igaro gara, gu baino baliabide gehiago dituzten lehiakidez, gainera. Horrek egoera deseroso batera eraman gaitu lehiakide horien eraginez zein gure ahulezia eta hutsen ondorioz. Aitortu beharra dago testuliburugintzak ez duela Elhuyarren baitan garai batean zuen pisu handia eta, apika, txikiagoa izango dela seguruenik etorkizunean.

Bestetik, euskal testu-egileen egoera ez da samurra. Euskarazko irakaskuntzan merkaturatu egin denean, kanpotik etorri diren argitaletxeek (zuzenean edo beren euskal filialen bidez) kalte handia egin

digute, produkzio-kostu txikiagoak eta gaztelaniaz amortizatutako materialak direla medio. Gainera, geuk bezala, erakundeen laguntzak izan dituzte. Euskal argitaletxeok egoera horretara moldatzen jakin beharko dugu, eraginkorragoak izanik besteak beste, baina hori ez da nahikoa izango, bigarren mailako irakaskuntzaren atomizazioari begiratzen badiogu, bereziki. Euskal Herritik Euskal Herrirako ikasmateriala sortzea nahi bada, ikasleek munduari euskal ikuspegitik begiratzea nahi bada, guztiz beharrezkoa da euskal argitaletxeak indartzeko eta sendotzeko bideak jartzea. Erakundeek zeresan handia dute euskal ikasleek kultur kolonialismoan eror daitezen saihesteko orduan. Laguntzak behar dira, oraingoak baino zabalagoak eta espezifikagoak, hala ere. ♦

## Informatika saila etorkizunari begira



Pili Lizaso

**A**zken urte hauetan urratutako bideari jarraitzea, hau da, geroz eta material osatuago eta erakargarriagoak eginez multimedia produktuak garatzen jarraitzea da etorkizun hurbilerako Elhuyarrek duen asmoetako bat informatika-sailean; CD-ROM euskarrian nahiz horren ondorengo izango den DVDn. Produktu hauek orokorrak izango dira edukiaren aldetik (bertan sortuak batzuetan eta arlo honetan esperientzia duten atzerriko etxeen lanak egokituz osatuak besteak) eta, nahiz eta irakaskuntzan material osagarri gisa erabiltzeko proposak izan, erabiltzaile-multzo zabalago baten beharrei erantzutera

zuzenduko dira; ez arrazoi ekonomikoengatik soilik, baizik eta errentagarritasun sozialagatik, batik bat. Produktu hauek ahalik eta jende gehienera iristea baita Elhuyarren nahia. Bestalde, eta beti ere multimediaren barruan interes handiko deritzogu euskal enpresei beren aurkezpenak nahiz ekoizten dituzten produktuen katalogoak teknologia berri hauen bidez eskaintzeko aukera zabaltzeari eta, beraz, iharduera berri honi ere helduko diogu. Aldi berean, ezin ahaztu gaur egun hain hedatuta dagoen Internet sarea eta, Elhuyarrek sare honetan zer eskainia baduela uste dugunez, horixe da epe ertainerako dugun beste erronka garrantzitsua: gure datu-baseak zein

aldizkaria sarearen bidez kontsultatzeko aukera ematea. Hauek dira dagoeneko buruan jira eta bira ditugunak, baina ez dugu ahaztu behar informatikak daraman abiadura geroz eta handiagoa dela eta gertatzen diren berrikuntzei heldu egin behar zaiela berandu izan aurretik. Ez dugu erronka makala, alajaina! ♦

## Hiztegi gintza



Antton Gurrutxaga

**A**urreko abuztuan, bidaia antolatu (edo erdi antolatu) horietako batean elkar ezagutu berriak ginen lagun batzuk solasean geundela, hasi zen norbait, opor-talde guztietara bidaltzen den dioxosozko gogaikarria, bakoitzak zein lan egiten zuen galdezka. Jakina, han denetik zegoen, irakasleak (bat baino gehiago noski), abokatu pare bat, soldatzeko makinaren diseinatzailea, betaurreko-diseinatzailea, medikua, argazkilaria... Txanda iritsi zitzaidanean, ez nekien zer esan. Hasi behar badut orain —neure artean pentsatu nuen— Elhuyarren egiten ditugun gauza guztiak azaltzen, aspertu egingo ditut igoal. Enpresan gauza asko, baina nik neuk... Hitzekin lan egiten duenari kostatzen zaio nonbait aldi berean lan-tresna eta -helburu diren horiek zer egiten duen adieraztea. Hiztegiak eta entziklopediak egiten aritzen naizela esanda konformatu nintzen. Egia esan behar badut, inori ez nion "zein lan interesgarria" entzun. Konbentziturata nago ordea, horixe pentsatu zutela. Bakar batek ireki zuen ahoa, katalan batek, zertarako eta lan itsusi eta aspergarri samarra dela esateko, eta erraza gainera, zeren hiztegiak hiztegietatik egiten baitira. Ez nuen txintik atera. Denak niri begira, egiten ari nintzen erridikuluaz konturatu nintzen jakin nahian. Baina ni oporretan nengoen. Gaur goizean, Elhuyarko hiztegi gintzaz zer idatzi pentsatzen hasi eta taxuzko ezer bururatzen ez zitzaidalarik, oporretako lagun edo ezagun haren hitzak etorri zaizkit gogora. Bidaia bukatutakoan elkarren helbideak eta telefonoa apuntatzeko ohitura dago bada, gehienetan ezertarako ez, baina oraingo honetan behintzat honako hau hari bidaltzea pentsatu dut:

"... maitea:


Hiztegiak hiztegietatik egiten direla diozu. Eta ez zaizu seguraski arrazoirik falta. Guk halaxe aitortu dugu Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa, Euskal Hiztegi Modernoa eta Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco Elhuyar Hiztegia eta Jkaslearen Hiztegia aurkeztu ditugunean eta, zuk ez dituzu ezagutuko baina fira, Azkue, Lhande, Mitxelena, Sarasola, Kintana, UZELJ, Adorez, Auñamendi, etab. aipatu izan ditugu, haien zordun baikara. Hiztegi edo entziklopedia bat hutsetik egiten hasi den inozorik ez da mundu honetara sortu. Zaharrak erabiltzen badira, zergatik egin behar dira berriak? Hizkuntza aldatu egiten delako. Hitzak gure bizitzan sartu eta bertatik atera egiten direlako. Edo oraingoan gazteentzako hiztegi txikia behar dela uste duzulako eta gero itzultzaile eta teknikarientzako handiago bat. Baina ez da hori esan nahi nizuna. Zuk, katalana izaki, ondorxo dakizu gureak bezalako hizkuntzen egoerak dakartzan ajeak: guk behintzat arazoak ditugu oraindik hau edo bestea euskaraz nola esan behar den edo esan daitekeen jakiteko. Alegia, "normalizatzen" ari gara ("normaltzen" ere esaten da, baina beharbada horretarako esperantza txikiagoa dugu). Eta horregatik, adibidez, 1990ean Hiztegi Entziklopedikoa egiten hasi ginenean, ez zegoen argi euskaraz atzerriko toki- eta pertsona-izenak nola idatzi behar ziren. "Sistema" bat behar zen eta sistema bat

proposatu bi liburu argitaratu genituen, Munduko Toki Jzenak eta Munduko Pertsona Jzenak. Ezin gara kexatu proposamen horiek izan duten harrera eta arrakastaz. Edo lexikoan, esaterako, definizio berri mordoak egin behar izan ditugu, euskara bere burua azaltzen azken urteotan hasi denez, hitz batzuen definizioa egin gabe zegoelako, edo zegoenak arazoak zituelako. Edo Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco Elhuyar Hiztegia egitean, gaztelaniazko hitz batzuen ordainak gurearen aurreko inongo hiztegi edo lanetan landu gabe zeudela konturatu ginen. Edo zegoen arazoari oso irtenbide desberdinak, bateraezinak, eman zitzaizkiola ikusita, adituekin kontsultak egin eta irtenbidea proposatu genuen. Eta horrelaxe gabiltza; Euskaltzaindiak halako erabakia hartu duela eta hiztegiatzen, edo euskal testuetan zein komunikabideetan ez dakit zer esateko nagusitu den esamoldearen berri jakin eta hiztegiatzen, edo administrazio publikoan ez dakit zer erabiltzea erabaki dutela eta hiztegiatzen, edo terminologia-lan batean berrikuntzak egin direla eta hiztegiatzen, edo harako itzultzaile hark ez dakit zer itzultzeko ideia pasatu, oniritzi eta hiztegiatzen... Edo, edo, edo. Eta hori dena zergatik? Argitaratu ditugun lanak behar-beharrezkoak zirela uste genuelako eta dugulako. Euskaldunok hor hutsuneak genituela irizita, betetzen saiatu garelako (1993an Hiztegi Entziklopedikoa kaleratu genuenean, euskaraz ez zegoen horrelakorik eta Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco Elhuyar Hiztegia urte askoan horrelako hiztegiak berritu gabe zeudela ikusita argitaratu genuen, 1996an). Eta hori egiteko modurik onena "haika mutil, jaiki hadi, kanpoan zer den mira hadi" da, norberaren ziborrari begira hitzak asmatzen ibili beharrean. Ez dakizu azken urteotan nola loratu den euskarazko hiztegi eta entziklopedien alorra. Orain gauza asko dauzkagu, baita CD-ROMak ere (guk bi argitaratu ditugu). Eta pozik gaude, hori gerta dadin Elhuyarrek zer bait egin duelako. Baina oraindik makina bat premia ditugu euskaldunok. Elhuyarkideok langintza honetan segitzeko asmoa dugula alegia. Azken gauza bat esan behar dizut: arazoia izango zenuen beharbada gurea lan zaila ez dela esan zenuenean, eta hiztegiak hiztegietatik egiten direla ere... fira, adiskideak izan gaitzen ondradu egingo dizut pixka bat. Baina ez dakizu zein lan polita den."

Nire lagun katalanari bidali baino lehen, zuei erakutsi nahi nizuen. Tontakeria handirik balego, abisa, ez nuke haren aurrean erridikulua berriz ere egin nahi. ♦

1972. urtea. Iluntzean bi gazte  
—Juanjo Gabiña eta Mikel Zalbide—  
Don Bosco ikastetxerako bidean gora  
doaz moto zahar batean.

Bertan Luis Bandresekin hitz egitekotan  
dira; euskara eta zientzia uztartzeko  
proiektuari buruz proposamen zehatz  
bat egin nahi diote: Injineru Eskolan  
elkarrekin aritutako lagunak eta  
orain ikasle diren batzuk talde batean  
elkartzea. Elhuyar Kultur Elkartearen  
hazia izan zen bilera hori.



1997. urtea. Goizean  
bakoitza bere automobilean  
etorri da Elhuyar Kultur  
Elkarteak Usurbilen duen  
egoitzara. Orduko, duela 25  
urteko, giroaz galdetuko  
diegu gaur egungo kideok.  
Proposamen zehatz bat egin  
diegu: 25 urte horietako  
ibilbideaz hausnarketa  
egin dezatela.

## “Erantzukizun sozial handia genuela sentitzen genuen”

Pili Kaltzada

**Usurbilgo egoitzan elkartu ginen uztailleko goiz batean. Larunbata, hasierako talde hark elkartzeko ohitura zuen egun bera, baina goizetik hasi ginen, patxada handiagoz hitz egin ahal izateko. Hitzordua jarrita eta baieztatuta genuen arren, batzuek ezin etorria adierazi ziguten. Lan nekeza izan da sortzaileak biltzea, baina, tira, azkenik, talde honen sorreran partehartze zuzena izan zuten batzuk, behintzat, urreratu zitzaizkigun. Argazki bat egiteko eskatu genien, sorrerako lehen argazkia.**

Taldea sortu  
aurreko giroa

1964-1970

Gure mahaikideak, gazteago eta inuzenteago zirela, ikasle moduan aurkitu ditugu Donostiako Injineru Eskolan. Ordura arte Seminarioa zen Euskal Herriko ikasleentzat ikasketak egiteko ia aukera bakarra, seme-alabak Salamancara edo Valladolidera bidaltzeko modua zuten apurrentzat salbu. Urte gutxitako alde dute beraien artean eta une batean edo bestean, batera aritu dira Eskolan.

*Luis Bandres:* Egia esan, guk geuk ere ez dakigu oso ondo zergatik hasi ginen Elhuyar Taldean elkartzen. Garbi ikusten dugu, ordea, larunbateroko bilera horiek egiten hasi baino askoz lehenago bagenbilkila kezka handi bat buruan: zientziari buruz hitz egiteko, idazteko, lan egiteko eta hausnarketa egiteko, euskara tresna baliagarria izan zitekeela uste genuen. Donostiako Injineru Eskolan ezagutu genuen elkar eta hantxe hasi ginen lanean, Euskal Kultur Taldeak (EKT) izeneko horietan, baita lehenago ere norbera bere kontura.

*Andoni Sagarna:* Hitz-zerrenda batzuk bazeuden aurretik, baina nahikoa puristak gure irudirako; horiek lantzen hasi ginen eta gero, apurka-apurka, zeregin gehiagotan sartu ginen.

## Lan-mundua



Tere Barrenetxea

**L**an-mundua euskararentzat irabaztea da Elhuyar Kultur Elkartearen xedeetako bat. Helburu hori lortzeko hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiegu enpresa eta era guztietako erakunde eta organizazioei. Burutzen ditugun proiektuen artean, euskararen erabilera areagotzeko mikroplangintzak izan dira, dudarik gabe, erronkarik handiena,

bai alderdi metodologikotik bai behar dituzten baliabideen aldetik. Mikroplangintza hauetan langile euskaldunen proportzio handia duten enpresetan euskararen erabilera areagotzeko ekintza-multzoa planifikatzen da. Egun, metodologia kontrastatua da eta hainbat enpresatan arrakastaz aplikatu da.

Baina arlo guztietan bezala, honetan ere aitzindariak izan dira. Dohainen bat behar da edozein arlotan bide-urratzaile izateko eta esparru honetan bi pertsona aipatu nahi ditugu. Andoni Sagarna lehenik. Ideia berrietarako ez da makala eta ideiak proiektu bihurtzeko dohaina du. Eta ingurukoak berak hausnartutako proiektuan lanean jartzeko ere ez da hankamotz gelditzen!

Berari zor diogu mikroplangintzen oinarrien lehen formulazioa. Berak erakutsi zigun bidea. Eta Anaje Narbaiza bigarren. ELAY enpresako euskalzale nekaezin honek proiektuak gauzatzeko dohaina du. Eta bai beste zenbait ezinezko iruditzen zaiona erraz itxuran aurkezteko grazia ere. Bera izan zen paperetan bestetan ez zegoen proiektua enpresa jakin batean, berak lan egiten duen enpresan, hain zuzen ere, aplika zitekeela sinetsi zuen lehena. Geroztik, beste zenbaitek sinetsi eta ikasi dugu eta horretan jarraitzen dugu. ♦

*Luis Bandres:* Eta hori guztia zertarako?

Ezertarako ez, egia esan; geure burua trebatzen hasteko, besterik ez. Kontuan izan behar dugu erabateko basamortua zela guk aurkitu genuena. Etxe-giroko kontuez landa, euskarak ez zuen ezertarako balio. Pentsa, hiztegirik ere ez zegoen.

*Andoni Sagarna:* Garai horretan, 64. urtean oker ez banago, Plazido Mujikaren hiztegia argitaratu zen eta hori guretzat sekulakoa izan zen. Gaur egun ia produktu arkeologikotzat hartzen dugu, baina pentsa, orduan zegoen bakarra zen.

*Juanjo Gabiña:* Eskolan, egia da, oso talde interesgarria elkartu ginen. Nik sarritan pentsatu izan dut zorizko kontua izan zela baldintza horiek guztiak ematea. Batetik, gure mailako ikasleen artean geu ginen, euskaldunok, onenak. Bestetik, ordezkariak ginen, ekimen berrietarako izugarriko gogoia genuen... jarrera oso positiboa zen. Gero, euskaldun dezente elkartu zen garai horretan Eskolan. Lan ikaragarria egin genuen: hitz-zerrendak osatu eta eguneratu, lanak itzuli, artikulua egin eta, askotan, gainera, gizarte-zientzietako gaiak ere jorratu genituen.

*Andoni Sagarna:* Eta kontu egin, gainera, Eskolak utzi egin zigula gure erara antolatzen. Guk Donostian aurkitu genuen giroa, dudarik gabe, salbuespena izan zen. Euskal kulturarekiko atxekimendu berezirik ez bazuten ere, halako permitibitatea edo bazegoen eta, areago, gure egitekoa erraztu egin zutela esango nuke. Nahi edo konturatu gabe apika...

*Luis Bandres:* Egia da oso aldeko giroa izan genuela beti Eskolan. Urteek ematen duten ikuspegitik aztertuta zera esango nuke: egiazki genuen indarra baino gehiago genuela uste zuten Eskolan. Pentsa ezazue zein egoera sozial eta politikoa bizi zen Euskal Herrian garai horretan; benetan uste zuten ikaragarri indartsuak ginela, baina ez zen horrenbesteko.

*Juanjo Gabiña:* Bagenuen, ordea, eragiteko gaitasun handia. Adibidez, Deustuko Kultur Mintegiarekin eta han-hemenka agertu ziren beste taldeekin harremanetan jarri ginenean guk egindakoari buruz galdetzen ziguten; guk nola egin genuen ikasi nahi zuten.

*Luis Bandres:* Konplexu ikaragarriak genituela ere aitortu behar dugu. Euskaldunak ginen, euskaraz hitz egiten genuen etxean eta lagunekin, baina gero, fisikari edo matematikari buruz ez ginen gauza euskaraz behar bezala egiteko.

*Andoni Sagarna:* Ez baikenekien nola esaten zen hau edo hori. Den-dena egiteko genuen; zalantzarik gabe, giro frenetikoa izan zen hasierako hura.

## 1970-1972

**Karrera amaituta, lanean hasi dira gure solaskideetako batzuk. Injineru Eskolan lan eskerga egindako taldetxo hori sakabanatzen hasten da, zeregin profesioaletara erabat emanda. Belaunaldi berria sartu da Eskolan eta gauzak egiten segitzen badute ere, kohesiorik ezaz kezkatzen hasi dira batzuk.**

*Luis Bandres:* Nik jaitsiera hori nozitu nuen lanean ari nintzela, Don Bosco ikastetxean fisikako eskolak ematen, hain zuzen. Euskaldun asko geunden Don Boscon, baina gelara sartu orduko gaztelania zen erabiltzen genuen hizkuntza bakarra. Nik segitu nuen lan batzuk itzultzen eta material berriak euskaraz sortzen, baina nire kasa ibiltzen nintzen edo lagunekin hau edo hori komentatuz.

*Juanjo Gabiña:* Karrerako azken urtean geundela, Mikel Zalbide eta biok Eskolan ibilitako jendea elkartzeari buruz hitz egiten hasi ginen. Oker ez banago, Mikel izan zen lehen aldiz talde finko bat eratzeko kontua aipatu zuena eta berehala heldu genion. Eskolan biologiako eta natur zientzietako gauzatxo batzuk egiten ari ginen, baina, esan bezala, nahikoa bakarkako lanak ziren. Luis ezagutzen genuen eta bagenekien lanean ari zela Don Boscon. Bi aldiz pentsatu gabe bere bila joan ginen.

*Luis Bandres:* Moto zahar batean iritsi ziren eta zuzenean proposatu zidaten talde bat osatzeko. Lanaren bizioa edo dugularik, lanean hasteko irrikitzen geunden guztiok eta berehala hasi ginen elkartzen. Larunbat arratsaldero, hutsik egin gabe batek daki zenbat urtetan.

*Juanjo Gabiña:* Sekulako zorrea izan zen Luis aurkitzea. Injineru Eskolan berarekin ibilitako batzuk berehala sartu zituen taldean eta guk ere, gure aldetik, beste askori jakinarazi genien gure proiektua. Gero Iñaki Azkune eta besteak etorri ziren eta talde moduan funtzionatzen hasi ginen seriooki.

*Andoni Sagarna:* Bilera horietan asko eztabaidatzen genuen euskararen normalkuntzari buruz, baina zerbait azpimarratu behar badugu, ekoizpen-gaitasuna da garai horretako giroaz niri gehien gustatzen zaidana. Egin eta egin, horixe zen gure lana.

*Juanjo Gabiña:* Eta, berez geureak ez ziren arloetan ere sartzen ginen; gizarte-zientzietan, etab. Euskal Herriko historiari buruzko lan potolo bat itzultzeraz ere ausartu ginen...

*Luis Bandres:* Garai horretan beste batzuk ere lanean ari ziren esparri horietan, baina ez ziren gure produkzio-mailara iristen. Askotan esan ohi da injineruok burua oso karratua dugula eta behin zerbait kaskuan sartuz gero ez dugula egin gabe uzten...

*Andoni Sagarna:* Formazioz ere desberdinak ginen, izan ere. Guri erakutsi egin ziguten gauzak egiten, apurka-apurka nahi baduzue, urratsez urrats, baina emaitzak lortzen genituen. Oso gauza abstraktuei buruz eztabaidatzen aritzen ziren horiei, ordea, kosta egiten zitzairen lan jakin batzuk aurrera ateratzea. Guk torlojoak bezala, artikulua eta liburuak egiten genituen.

*Juanjo Gabiña:* Eta oso zintzoak ginen lanean. Larunbateko bileretan erabakitzen zen zein lan egin eta gero, astean zehar, bakoitzak bere zatia, zegokiona, egiten zuen. Lan-dinamika itzela zen hura.

## Lankide berriak agertzen dira

**Garai bertsuan sortu zen, bestalde, Udako Euskal Unibertsitatea ere, eta ikastola asko eta jaialdiak egiten hasi ziren euskal abeslariak. Premisa berriak ezartzen dira artearen munduan ere. Basamortua loratzen hasi ote da?**

ARGIA





Luis Bandres

*Luis Bandres:* Guk hasiera-  
-hasieratik hartu genuen  
parte UEUren sorreran.  
Elhuyar zen garai horretan  
serioski lanean ari zen  
talde finko ia bakarra,  
astero-astero elkartu eta  
lana tajuz egiten zuena.  
Berehala aditu genituen  
beste batzuen asmoak eta  
elkarrekin kezka berriak  
argitzen hasi ginen. Nire  
ustez, UEUren sorrera,

neurri handi batean, Elhuyarrek ahalbidetu zuen  
eta gure taldeko kideek pisu handia izan zuten  
UEUk bere kasa aurrera egiteko modua eduki  
zuen arte. Helburu bera genuen: euskara  
etxe-zulotik atera eta egiazko tresna bilakatzea.  
Materialak prestatzen, jendea erakartzen,  
propaganda eta, tarteka "dibisa-trafiko" txikiak  
egiten aritzen ginen. Jende askok izan zuen  
UEUren berri gure taldearen bitartez. Urte  
horietan xalabardoa eskuan ibiltzen ginen leku  
guztietan, jende-harrapaketan.

*Juanjo Gabiña:* Sekulako eztabaidak izaten  
genituen. Uztaritzekoak, adibidez, kenketei  
buruz, eta abar. Gaur egun erabat finkatutzat  
ditugun esamoldeak eta hitzak orduan  
sortu ziren luze eta sakon eztabaidatu eta gero.

## Zergatik orduan?

**Bistan denez, ordukoa ez zen Elhuyar  
bezalako talde bat abian jartzeko girorik  
egokiena. Apika, ez da sekula horretarako  
abagune egokirik izan, baina ezina ekinez  
egin zuten orduan. Galdera bat sortzen  
zaigu behin eta berriro buruan.  
Zergatik orduan? Zein indar aurkitu zuten  
sortzaileek oztopoak besterik eskaintzen ez  
zituena giro horretan?**

*Andoni Sagarna:* Baldintza desberdin asko  
gertatu ziren batera gure garaian eta horien  
guztien ondorio da Elhuyar taldea. Adibidez,  
geurea izan zen, gaur egungo ikuspegitik  
ulertuta, ikasketa unibertsitarioak egin zituen  
lehen belaunadia. Ordura arteko guztiek ia  
derrigorrez pasatu behar zuten Seminariorik,  
ezer egin nahi bazuten, eta unibertsitatera  
iristen zirenek ere bide bihurriak egin behar

izaten zituzten. Valladoliden edo Salamankan  
ikasitakoak ziren orduko unibertsitarioak.  
Euskal Herrian bertan ikasitakoak orduantxe hasi  
ziren agertzen.

*Luis Bandres:* Elhuyar bere garaia ere  
bada, giro horretan hazi eta dakigun apurra  
hantxe ikasi genuelako. Eta eragin soziopolitiko  
handia zegoen gizarte horretan. Taldeko  
bileretan gai politikoei buruz ez genuen  
eztabaidatzen, ez zen hori gure egitekoa, baina  
hor zeuden; hasieratik oso garbi ikusi genuen  
hori bereiztu egin behar genuela. Baina gu  
euskaldunak eta abertzaleak ginen diktaduraren  
azken hondarretan; kalean zer gertatzen zen  
ikusi egiten genuen eta, nahitaez, oso azalean  
zegoen potentzialitate politiko hori. Gerora,  
batzuek garatu dute, beste batzuek ez, baina hor  
zegoen.

*Andoni Sagarna:* Sarritan esan izan da  
beharrezkoa dela kontrako indar bat egotea  
aurrera egingo bada. Eta horixe zen guk  
ezagutu genuen egoera. Giro ofiziala kontrakoa  
ez ezik, egiten ari ginenaren etsai amorratua ere  
bazen. Baina euskalgintzan lanean ari ginen,  
gauzak sortzen ari ziren.

*Luis Bandres:* Garai horretan, adibidez, euskara  
batuaren hika-mika zebilen dantzan...

*Juanjo Gabiña:* Guk ez genuen inolako arazorik  
izan Euskaltzaindiak esandakoa betetzeko,  
zetzuzkoa iruditzen  
zitzaigulako. Nahikoa  
urrutitik ikusi genituen  
horren inguruko  
eztabaidak; gure taldean  
ez zegoen belaunadi-  
-jauzia, iritzi desberdinik  
maila horretan eta horixe  
da, hain zuzen ere,  
zenbait ingurutan  
eztabaida benetan  
garratzak sorrarazi  
zituena.



Juanjo Gabiña

*Luis Bandres:* Gure buruaren kontra harrika ari  
naizela pentsatuko duzue, baina buru  
karratuarena aipatu behar dut berriro. Izan ere,  
gu praktikoak ginen; guk gauzak egin behar  
genituen eta, beraz, erabat normaltzat hartu  
genuen hizkuntza finkatzeaz arduratzen den  
Akademiak esaten zuena onartzea eta ia-ia  
diskutitu ere egin gabe horrelaxe jokatu genuen  
hasiera horretan.

## Lan-dinamika

**Behin baino gehiagotan esan den bezala, Elhuyar taldeko kideak bolondresak ziren. Larunbatero elkartzen ziren eta bilera horietan erabakitzen ziren astean zehar egin beharreko lanak. Bilera horietan eztabaidatu egiten zuten, lan-ildoak zehaztu eta oztopoak zerrendatu. Gaurko begieztatik, larunbateko bilera horiek lan-dinamika berezi hori gorpuzteko behar zen "bihotza" zirela pentsa liteke.**

*Andoni Sagarna:* Harrigarria gertatzen zaio gaur egun askori urte luzetan eraman genuen lan-dinamika hori. Batetik, beste modurik ez zegoela pentsatzen genuen; garai horretan, eta aipatzen ari garen baldintzetan, ezin zitekeen lan profesionalik antolatu euskara eta zientzia uztartzeko. Gure bizimodua beste nonbaitetik ateratzen genuen eta bolondres gisa hartzen genituen gure "etxeko lanak".

*Luis Bandres:* Eta neuk, behintzat, ez dut sekula sentitu halako sakrifizio handi bat egiten ari nintzenik; ez nuen sentitzen zerbaiti uko egiten nionik Elhuyarren lanean aritzeko. Horretara ohituta geunden eta gaur egun ere horrelaxe segitzen dugu. Ohituraz edo, larunbat arrantsaldetan etxean geratzen gara gutariko asko, gure paperetan sartuta eta, harrigarriena izan daitekeena, gustura, oso gustura egiten dugu hori.

*Andoni Sagarna:* Eta horrela hazi garela edo, ni afal ostean oraindik lanean jartzen naiz ia egunero. Elhuyarrerako lanak horrelaxe egin dira urtetan: gaeuz, iluntzean, igande goizetan, etab.

*Juanjo Gabiña:* Ez ginen gu bereziki masokistak, ez pentsa. Emaztegaiarekin behin baino gehiagotan diskutitzen bagenuen ere, oso gustura elkartzen ginen larunbatetan eta lan egin ondoren, lagunartea bikainean, poteatzera ateratzen ginen.

*Andoni Sagarna:* Nik oinarri-oinarrian sakonagoa den beste arrazoi bat ere ikusten dut. Gure formazioak, gure izaera baldintzatu duten faktore horien guztien multzoak erantzukizun

soziala edukitzera eraman gintuen. Egiteko zerbait genuela pentsatzen genuen eta pentsatzen dugu gaur egun ere. Gure hezkuntza, formala nahiz arautu gabea, horrelakoa zen: gizarte honetan bizi zara, kultura batera jaio zara eta zure ekarpena egin behar diozu. Horretan oinarrituta zegoen, neurri handi batean, gure egiteko dinamika hori.

*Juanjo Gabiña:* Hurrengo belaunaldietarako zerbait egin beharra zegoela garbi ikusten genuen. Eta horrek lan itzela eskatzen zuen; sarritan esan dugun bezala, garai horretan horixe zen lan egiteko modu ia bakarra eta gogoz aritu ginen.

*Luis Bandres:* Beharbada, horixe da nik gaur egun faltan sumatzen dudana. Matur batetik bestera pasa gara oso denbora laburrean. Lehen, Elhuyar taldea abian jarri genuenean, ez zegoen ezer; basamortuan bizi ginen euskaldunok eta, gainera, erakunde guztiak kontra zeuden, baina ilusioa genuen, lan egiteko grina. Gaur egun, ordea, sasi-profesionalizazioak beste bide batzuk jorratzen ditu; gauzak egin baino lehen dirulaguntza edo antzekoa bermatuta eduki behar da, bestela ez da deus egiten. Ilusiorik gabe lan egiten da sektore askotan.

*Andoni Sagarna:* Eta dudarik gabe, profesionalizazioa behar-beharrezkoa da, are gehiago talde honetan. Profesional onak behar dira orain lantzen ari garen esparruetan eragin ahal izateko, baina batak ez du zertan derrigorrez bestea ukatzen. Lanaren erabilgarritasuna aldarrikatu behar da; ilusioa eta helburua eduki behar dira egiten ari garena baliogarria dela sinistuz. Zereginik sinpleenean ere, gizarte honi zerbait aportatzen ari gatzazkola sentitu behar dugu aurrera egin ahal izateko. Funtsean, horregatik lortu dute irautea Elhuyarrek eta euskalgintzako beste talde askok. X



*Andoni Sagarna*